# BERRIGARA

3. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, martxoak 22



# Gobernuz kanpoko erakundeak

## Hirugarren munduaz kezkaturik



**Autopulmans Araba S.L.**

Angiozar auzoa, 3 BERGARA **AUTOBUSAK** Telefonoa: 76 55 70

**Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza, bodega, ikasketa bidaia, despedida, lantegi, eskola...**

**ESKA EZAZU AURREKONTUA!!**

# BERGARAKO osasun gida

**ALBAITARIAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • IRASTORZA BENGOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK) | Iribar baserria ANTZUOLA | ☎ 76 63 46 |
| • NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47 | Koldo Eleizalde, 28 | ☎ 76 27 97 |

**ANALISI KLINIKOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • LABORRA ISABEL | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |

**BARNE MEDIKUNTZA:**

| | | |
|---|---|---|
| • IRIGOYEN VICTOR | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |

**DENTISTAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ASTIAZARAN SOLOZABAL | Iparragirre, 1 behea | ☎ 76 27 95 |
| • BERGARA HAGIN KLINIKA | Bidekurutzeta 6, 2 | ☎ 76 05 77 |
| • GOROSABEL J. ALBERTO | Fraiskozuri, 5 behea | ☎ 76 56 88 |
| • IRIARTE IDOIA | Artekale 1, 1. C | ☎ 76 01 65 |
| • SUDUPE FELIPE | Matxiategi, 18 behea ezkerra | ☎ 76 07 66 |
| • GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. | S. Arrieta 3, 2. B | ☎ 76 38 54 |

**FISIOTERAPEUTAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL) | Masterreka, 7 4. C | ☎ 76 43 71 |

**GINEKOLOGOA:**

| | | |
|---|---|---|
| • SERRANO DOKTOREA | Ramon María Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |

**MASAILARIAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • AGIRREZABAL JOSE JABIER | Boni Laskurain 1, 2. A | ☎ 76 15 74 |
| • AZPEITIA IRUNE | Agorrosingo igerilekuak | ☎ 76 20 51 |
| • CASANELLAS JABIER | Boni Laskurain 5, 2. E | ☎ 76 03 78 |
| • GIARTZU | Boni Laskurain, 3 behea | ☎ 76 35 71 |
| • MARTINEZ LUIS JABIER | Masterreka 7, 3. A | ☎ 76 51 18 |

**MEDIKUNTZA OROKORRA:**

| | | |
|---|---|---|
| • ARCINIEGA JULIO | Boni Laskurain 3, 1. B | ☎ 76 37 50 |

**PEDAGOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOJIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | Simon Arrieta 3, 2. E | ☎ 76 26 42 |

**PODOLOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ALTUBE EDURNE | Simon Arrieta, 2 | ☎ 76 07 84 |
| • AZPIAZU ARANTZAZU | Herri Lagunak, z/g. | ☎ 76 41 32 |

**PSIKIATRA:**

| | | |
|---|---|---|
| • GALLASTEGI PABLO | San Martin Plaza 2, 1. ezkerra | ☎ 76 26 64 |

**PSIKOLOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | | ☎ 76 14 80 |
| • URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | | ☎ 76 53 13 |
| • ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | | ☎ 76 30 76 |
| • FERNANDEZ J.R. | Ramon Maria Lilí, 2 | ☎ 76 59 39 |

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

**Argitaratzailea:**
JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19
**Zuzendaria:**
Eneko Azkarate
**Erredakzioa:**
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate
**Publizitatea:**
Alex Azkarate
**Harpidetzak:**
Gorka Elortza
**Testuen zuzenketak:**
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien
**Erredakzio kontseilua:**
Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
**Komikiak:**
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate
**Banaketa:**
Txantxangorri taldea
**Tirada:**
4.000 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**Copyright:**
BERRIGARA
**Lege gordailua:**
SS 50/91
**ISSN:**
1130-6599

**BERRIGARAk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

# IÑIGO RAMIREZ

## *Antzuolako Kultur zinegotzia*



**- Igandean liburu berri bat aurkeztuko duzue Antzuolan...**

- Horrela da, bai. 1900etik 1970era bitarteko argazkien bilduma litzateke. Antzuolar guztiek Antzuolako historiaren zati bat izatea litzateke liburuaren helburua eta horretarako 89an eta 92an bi argazki bilduma egin ditugu. Gainera, esan behar da normalean etxeetan ez dauden argazkiak direla, herritarrengana jotzeaz gain, hainbat erakundetara eta beste hainbat iturritara jo dugu eta. Argazkiekin batera testu laburrak joango dira eta Antzuolako historiaren kronologia ere bai.

**- Zenbat ale kaleratuko dituzue? Non erosi ahal izango da?**

- Aurreko "Antzuolako baserri eta errotak" liburuak izandako erantzuna ikusirik, 1.000 ale kaleratuko dira eta 1.000 pezetan salduko dira. Liburuak 175 orrialde ditu (guztira 200 bat argazki dira) eta Bergaran ere jarriko da salgai. Bestalde, igandeko 12.30etako aurkezpenean, Antzuolako postalen karpetatxoak ere salduko dira.

***"Argazki zaharren liburuan Antzuolako historiaren zati bat bildu nahi izan dugu"***

## I T U R R I O N E T I K

### Nekazal turismoari zuzendutako etxe bat izango da Bergaran

Nekazal turismoari zuzendutako etxe bat izango da ziurrenik Bergaran datorren urtearen amaieran. Lamaiño-Etxeberri baserrikoek, baserriaren ondoan, nekazal turismoa jasotzeko etxe berri bat egiteko asmoa daukate. Aipatutako etxe horrek hiruzpalau gela izango lituzke, oraindik ere proiekturik egin ez duten arren. Esan bezala, proiektua garatzeke dago baina Lamaiño-Etxeberri baserrikoek 1997ko urte amaiera ingururako etxea martxan jartzeko asmoa dute. Bergara inguruan nekazal turismoari zuzendutako etxe bakarra Aretxabaletan dago, Urkulu urtegiaren inguruan.

## E S A N D U T E

"Jarrera arrazista batzuk, inmigranteek lanpostuak kentzen dizkigutela esatea adibidez, gobernuak bultzatutako politikaren ondorio dira"

**AGUSTIN UNZURRUNZAGA**
Gipuzkoako SOS Arrazakeriako bozeramalea
EL DIARIO VASCO

●

"Gezurra esango nuke Real Madriden jokatzea ez litzaidakeela gustatuko esango banu. (...) Olinpiadetara joatea zoragarria izango litzateke, horrelako kirol ekitaldi batean parte hartzea gozada bat izango litzateke. Hala ere, niri Ingalaterrako Eurokopara joatea gustatuko litzaidake, hori ia ezinezkoa den arren"

**AGUSTIN ARANZABAL**
Realeko jokalaria
EL CORREO

●

"Baserri inguruak ez dira bakarrik egunpasa egiteko, bertan hainbatek bere bizimodua du"

**MAITE ARISTEGI**
Abokatua
EGIN

●



**TWO MUCH**
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikus. Eguna)



**MAJOR LEAGUE 2**
Igandea: 11.30 (Matinala).



**ANGELES INSECTOS**
Osteguna (Zine-kluba): 20.00.

## Zinea

▼▼ *Belle epoque* filmearen arrakastaren ondoren **Fernando Trueba** zuzendariak Estatu Batuetan errodatu du bere azken filmea. **Donald Westlake** idazlearen nobelan oinarrituta eta aintzinako komediak berreskuratu nahirik, **Melanie Griffith** eta **Antonio Banderas** bikotea, **Daryl Hannah**, **Danny Aiello** edota **Joan Cusack** aktoreak aukeratu ditu istorio nahasi hau lantzeko.

▼▼ Aurreko zatiaren ildotik, Estatu Batuetako beisbol ligaren giro berezia isladatu nahi izan du **David S. Ward** zuzendariak. *Rick Vaughn* (**Charlie Sheen**), *Jake Taylor* (**Tom Berenger**) eta *Roger Dorn* (**Corbin Bernsen**) jokalari beteranoek Clevelandeko taldea berpiztu nahi izango dute baina ez dute lan makala izango...

▼▼ **A.S. Byatt**en *"Morpho Eugenia"* nobelan oinarrituta, **Philip Haas** zuzendariaren filme hau iazko Cannesko Zine Jaialdian aurkeztu zen. 1860. urteko Ingalaterran kokatuta, *Alabaster* familia aristokratikoaren gorabeherak azaltzen zaizkigu bertan. **Mark Rylance**, **Kristin Scott**, **Patsy Kensit** edota **Jeremy Kemp** aktoreak erreparto buruan.

## Deiak

▼ **Oihulari Klown** antzerki taldea ostegunean, martxoak 28, gaueko 10etan, Pol-Pol tabernan.

▼ **1964**an jaiotako bergararren bazkaria apirilaren 27an. Informazioa Plazako kioskoan (Jose Antonio Luque) edota 76 29 99/47 57 (Peli Narbaiza) telefonoetan.

▼ **1951**ko Gipuzkoako kintoen anaiarteko eguna martxoaren 31n Zumarragan. 12.30etan meza Asunción elizan eta ondoren bazkaria Etxe-Berrin. Izen ematea 88 23 07, 67 19 26 eta 21 12 01 telefonoetan.

▼ **Rosario Jiménez**en margoak Azpeitiko Kilikolor dendan.

▼ **Benito Cantero**ren argazki erakusketa Eibarko Kultu tabernan.

## Ogia

▼ **Igandea 24:** Bolintxo.

## FARMAZIAK

▼ **Ostirala 22:** Mozos/Corcuera.
▼ **Larunbata 23:** Camacho/Irizar.
▼ **Igandea 24:** Camacho/Amezua.
▼ **Astelehena 25:** Puy/Ruiz.
▼ **Asteartea 26:** Guallar/Morales.
▼ **Asteazkena 27:** Estella/Azkoaga.
▼ **Osteguna 28:** Mozos/Español.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi ☎ 76 15 09

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

# Aritzeta eta Iraurgi

## Bergarako eta Azkoitiko abesbatzen kontzertua zapatuan

**Aritzeta abesbatzak** eta Azkoitiko Iraurgi abesbatzak emanaldia eskeiniko dute bihar larunbata, hilak 23, arratsaldeko 8etan Santa Marina Parrokian. Bergararrak eta azkoitiarrak elkarri bisita egitekotan geratu dira eta, horren ondorioz, hurrengo larunbatean, martxoak 30, Aritzetakoek Azkoitin abestuko dute. Biharko emanaldian Aritzetak pasa den ekainaren 18an San Pedro parrokian aurkeztutako Mozarten Misa Brevisa eskeiniko du.



Aritzetakoak Belgika edo Holandara joan daitezke udan Xamatz dantza taldearekin batera.

Aritzetako zuzendaria Izaskun Labaien bada ere, lan honetan Imanol Urzelaik betetzen ditu zuzendari lanak. Horrez gain, bakarlariak honako hauek izango dira: Itziar Labaien (sopranoa), Izaskun Labaien (kontraltoa), Agustin Badiola (tenorea) eta Iñaki Olaizola (bajoa). Aritzetan 35 lagun ari dira gaur egun eta biharkoa Mozarten *Misa Brevis en sol M-KV49* lanaren bigarren emanaldia izango da.

Aurretik, Maria Jesus Larrañagak zuzentzen duen Iraurgi abesbatzak honako lan hauek abestuko ditu: *Christus factus est* (De Lasso), *Pange lingua* (Bruckner), *Señor, me cansa la vida* (García), *Libera me* (Bardos), *Oh Jesu Christe* (Van Berchem), *Otoitza* (Fisher) eta *Ex sultate do* (Scarlatti). Iraurgi abesbatzaren partetik bakarlariak Eba Arrieta eta Maria Pilar Aldalur izango dira.

Kontzertuari amaiera emateko Iraurgi eta Aritzeta abesbatzek bi pieza eskeiniko dituzte elkarrekin, *Eli, Eli* (Aspiazu) eta *Aita gurea* (Marinarena).

**Abesbatza bakoitzak banaka kantatu ondoren, "Eli, Eli" eta "Aita Gurea" eskeiniko dute elkarrekin**

### Udan Aritzeta Europara

Bestalde, Aritzetak, Xamatz dantza taldearekin batera, udan Europara bidaia egiteko asmoa dauka. Hasieran bi taldeek Ukraniara joan nahi zuten San Martzialetan Bergaran izan zen Kalyna dantza taldearen gonbidapenari erantzunez. Hala ere, Ukraniak gaur egun bizi duen egoera politikoa kontutan izanik, Aritzeta eta Xamatz beste aukera batzuk aztertzen hasi dira.

Badirudi Belgika eta Holandara joateko aukerak gero eta indar gehiago duela eta tartean Paris ere bisitatuko lukete Xamatz dantza taldeko eta Aritzetako kideek.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA




Pepelu
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

## "Presoak Euskal Herrira"

Murtzian, 1996ko martxoaren 16an.

Dakizuenez "Presoak Euskal Herrira" lemapean urtarrilaren 15etik aurrera euskal preso politikoen kolektiboak kaleko hainbat burkiderekin batera gose greba zein beste motatatako borroka mugagabeari ekin diogu. Borroka mota honek, duen zentzuagatik eta partizipazioagatik, ez du orain arte egin ditugun borrokekin parekotasunik. Izan ere mugagabea izaterakoan helburuak lortu arte jarraituko baitugu.

Aspertuta gaude urteetan zehar gure eskubideei muzin eta uko egiten dieten, Espainol zein Euskal Gobernuko alderdiei, gure egoera salatzen. Orain arte emaitza gutxi jaso arren, hitz politak euren buru eta kontzientziak zuritzeko besterik ez. Izan ere, zaila da gure aurkako tresna modutzat dispertsioa erabili duten alderdiengandik beste ezer itxarotea.

Horrelako apustua kolektiboaren batasuna apurtzeko eta pertsonalki suntsitu eta gero, damuketa bideari ekiteko, errepresio eta isolamendua areagotuz asmatua izan da. Zenbat paliza, irain, trufa, mehatxu eta abar jaso ditugun gure isolamenduko inpotentzian beste burkide bat agurtzearren edo irrati kaskar bat edukitzeko eskubidea aldarrikatzearren eta oraindik gaur ere lotsa gutxirekin esaten dute guk eskatutako neurriak direla.

Itunekoek ezarritako politika basati honek porrot egin du, presoen kolektiboak berriro irabazi egin dugu; alderdiak hasi dira diskurtsoz aldatzen baina oraindik ere falta zaigu Euskal Herrian denok biltzea eta horretarako, betiko moduan herri borrokaren bidez lortu beharko dugu.

Horregatik, herkide maiteok, eskutitz honen bidez Senideak-ek eta Gestorek antolatutako ekintzetan parte har dezazuela eskatzen dizuegu, bai legez eta zilegiz gure herrian egotea dagokigulako, Euskal Herrian kokatu arte, palizak ekiditeko, etxekoei errezteko, euskaldunak garelako.

Mila esker aurretik eta besarkada bana.

Xabier Oregi "Panti"

## Zenbait proposamen

Lehenik eta behin futbito txapelketako antolatzaileak zoriondu nahi ditut, lan benetan aipagarria egiten dutelako honelako txapelketa bat aurrera ateratzeko.

Era berean gomendio batzuk luzatu nahi nizkieke. Batetik, talde guztiek kanpoko kantxan eta Polideportibo barruan jokatzen dituzten partiduen kontua argi eta garbi eramatea, taldeen arteko desberdintasunik ez egoteko. Badira ia partidu guztiak kiroldegi barruan jokatu dituzten ekipoak. Nire ustez guztiok kuota berdina ordaintzen dugu eta beraz zuzena iruditzen zait guztiontzat eskubide berdinak izatea.

Bestalde, kanpoan jokatzen diren partiduak Miguel Altuna Institutu berriko kantxetan ere jokatzeko aukera azte... dezatela eskatuko nieke.

Besterik gabe, zorionak berriz ere eta gomendio hauek txapelketaren one... rako izan daitezela.

Mikel G.

## Tiiira biraka

UNAI AZKARATE



### ◆ Kilometroak 96ko produktuak

Aurten Elgoibarren izango den Kilometroak 96ko produktuak salgai daude Seminarioan, Alargunen Elkarteko ondoko lokalean, astelehenetik ostegunera 5etatik 6 t'erdietara.

### ◆ Aranzabal Lagunartea

Zapatu honetan eguerdiko ordu batean Zabalotegiko dorreko lokaletan beste bilera bat egingo du Aranzabal Lagunarteak. Bi gai nagusi aztertuko dira, alde batetik hil honen 31n Realak Betisen kontra Anoetan jokatuko duen partidura joateko autobusa antolatuko dela. Bestetik, apirilaren 1ean, astelehena, Pertxa elkartean Aranzabal Lagunartearen aurkezpen ofiziala egingo dela, bertan, Agustin Aranzabalez gain, Realeko hainbat jokalari, prestatzaile eta direktibo izango direlarik.

### ◆ Inaugurazioa

Miguel Altuna Institutu berriko inaugurazio ofiziala egingo da datorren asteazkenean, martxoak 27, goizeko 11etatik aurrera.

**HILDAKOAK**

**Josefa Portal Portal**
Martxoak 17, 75 urte

**JAIOTAKOAK**

**Ainhoa Sasieta Agirre**
Martxoak 15

**Igor Okina Mujika**
Martxoak 18

**Beñat González Iñurrategi**
Martxoak 11




Jose Antonio Ardanza Lehendakaria eta Iñaki Alberdi Orniko Salmenta Zuzendaria Bilboko ferian.

# Bergarako hiru enpresa Bilboko Erraminta Makina Ferian

## *Lazpiur, Orni eta Soraluzek balorazio positiboa egin dute*

**Joan den igandean** amaitu zen Bilboko Erraminta Makinaren Nazioarteko Ferian Bergarako 3 enpresa izan dira. Lazpiur S.A.k, Orni S.A.k eta Soraluze Kooperatibak euren makina berrienak erakutsi dituzte Bilboko erakustokian.

**Lazpiur: Laser optikoa**

Lazpiurrek laser optiko makina bat eraman du Bilbora. Materialak ebakitzeko makina da eta aeronautika eta automozio sektoreetara zuzenduta dago. Jaurlaritzan UET programari esker, Lazpiurrek Robotiker eta Fagorrekin batera landu duen makinaren berrikuntza nagusia bolumeneko piezak izpi laserrarekin moztен dituela da. UET programa horren barruan ere makinaren hiru erosle posible elkartu dira, Dismodel, Estampaciones Vizcaya eta BMS. Mikel Lazpiur gerentearen hitzetan, *"feriaren inpresio ona daukagu baina, bestalde, lana jeisten hasiko ote den beldur gara. 2000. urtera arte perspektiba onak ditugu produkzioa bikoiztu dezakegulako, baina Alemaniak piskat behera egin du eta hori beti da kezkagarria. Salmentek ere behera egin dute..."*.

**Orni: Robotizatutako lixadora**

Ornik, bestalde, robotizatutako lixadora bat, 4 kabezal eta posizio bikoitzeko beste makina berezi bat eta aspiradore purifikadore (Orniren *klasiko* bat) bat eraman ditu Bilboko Feriara. Iñaki Alberdi Orniko Salmenta Zuzendariak azaldu digunez, *"feriaren balorazio positiboa egiten dugu, kontaktu interesgarriak egin ditugu eta. Beti ere aurreko edizioekin egiten da konparaketa eta guri behintzat orain 2 urte baino hobeto joan zaigu"*.

**Soraluze: bi fresadora**

Azkenik, Soraluze kooperatibak bi fresadora aurkeztu ditu Bilbon: muntaketa mugikorrekoa bata eta bankada fijokoa bestea. Fresadorak piezei, lehen pasada batean, balio ez duen materiala kentzeko erabiltzen dira eta Soraluzek ferian erakutsitako bi modeloak, besteak beste, Estatu Batuetara eta Alemaniara salduko dira. Soraluzek ere feriaren balorazio positiboa egin du.

### ◆ Aranzadi Ikastolako zozketa

Aranzadi Ikastolako BBBko 3. mailako ikasleek antolatutako zozketan 305 zenbakia saritua izan da. Mari Carmen Quintana da saritutako boletoaren jabea.

### ◆ Traste zaharren bilketa

Apiriletik aurrera traste zaharrak hilaren lehen asteazkenean goizeko 8etatik aurrera batuko dira, eta trasteak 7etatik 8etara bitartean laga beharko dira zabor guneetan. Bestalde, traste zaharrak jarraian datozen toki hauetan lagatzeko asmoa dutenek Udaltzaingora (77 91 06 telefonoa) deitu beharko dute bezperako (asteartea) 12.30ak baino lehen, non lagako dituzten zehaztuko: San Antonioko bidegurutzetik Antzuola bidean Bergarako mugaraino, San Antonio gurutzetik Gabiriraino, Labegaraieta auzotik Angiozarreraino, San Lorentzoko zubitik Osintxuraino edota San Lorentzoko zubitik Elgetarako bidean dagoen Bergarako mugara bitartean.

### ◆ Elkarriren eztabaida foroak martxan

Atzo, osteguna, Bergarako Elkarriren eztabaida foroak jarri ziren martxan. Bertan 25 herritar inguruk hartuko dute parte, hilean behin bilduko direlarik. Atzoko aurkezpenean Jose Iriarte "Bikila"k "*Gizartea, gatazka gainditzearen eragile* izenburuko gaia landu zuen. Bergarako Elkarriren asmoa Euskal Herriak gaur bizi duen gatazka aztertzea litzateke.



Bergarako Udalak peajea San Antonen ez jartzeko alegazioa aurkeztu zion Diputazioari.

## San Anton ermita tokiz aldatzea proposatu du Diputazioak

### *Autopistaren peajea ermita dagoen tokian egingo da*

Gipuzkoako Diputatuen Batzordeak ez du onartu Bergarako Udalak Maltzaga-Urbina autopistaren hasierako trazaketaren gainean aurkeztutako alegazioa eta San Anton ermita harriz harri beste toki batera eramatea erabaki du.

Udalak San Anton ermita dagoenetan lagatzeko alegazioa aurkeztu zuen, autopistaren hasierako trazaketaren arabera Amilagan peaje bat jarriko baita. Peaje horrek San Anton ermitan eragin zuzena izango lukeela kontutan izanik, Udalak trazaketa aldatu eta ermita bertan lagatzeko proposamena luzatu zion Diputazioari. Xabier Aranburu udal museologoak landutako alegazioan, besteak beste, XVI. mendeko San Antoneko ermitaren balio artistikoa eta auzokideen artean duen tradizioa (San Anton jaietan adibidez) aipatzen ziren. Era berean, ermita lekuz aldatzekotan, auzokideen proposamena kontutan hartzeko eskatzen zuen Aranburuk.

Diputazioak bidalitako idatzian ermita lekuz aldatzeko aukera onartzen da, hala ere, Xabier Aranburuk ez dio garrantzi gehiegirik eman Diputazioaren idatziari. Aranbururen hitzetan, *"autopistak ez dauka behin-betiko trazaketarik oraindik. Behin-behineko gauza baten gainean hartutako erabakiak indar haundiegirik ez dauka"*. Autopistaren behin-betiko trazaketa egiten denean Udalak dagozkion alegazioak aurkezteko aukera izango du.

Zure konfidantzako denda

LASAGABASTER

Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

# Senideak, HB eta BOTAk euren mozioak aztertzeko Udal Gobernuaren borondate falta salatu dute

Herri Batasunak, Senideak elkarteak eta BOTA antimilitarista taldeak Victoriano Gallastegi alkateak euren mozio batzuk aztertzeko azaldutako borondate falta salatu zuten asteazkenean prentsaurrean. Maite Aristegi HBko zinegotziak azaldu zuenez, *"herriko talde garrantzitsu batzuen ordezkari bezala sentitzen dugun inpotentzia eta bazterkeria salatu nahi dugu. Udaleko Gobernua osatzen duten taldeek eta, ordezkari goren bezala, alkateak herriarekiko daukan errespetu eta begirune falta salatu nahi dugu"*.

Maite Aristegik azaldu zuenez, azken urtean aurkeztutako 8 mozio oraindik aztertzeke daude. *"Gure ahotsa entzunarazteko modu bakarra mozioak dira eta aukera hori ere kendu egiten zaigu"*. Aristegiren hitzetan, *"mozio bat aurkeztutakoan eta Plenoko gai zerrendan sartzea alkatearen ahalmena da. Alkatearen aldetik argi dago ez dagoela borondaterik eta beste udal gobernu kideen arduragabekeria ere hor dago"*.

Alkateak mozio horrek ez aztertzeko arrazoi ezberdinak eman dizkie. *"Ez ditugu inondik inora onartzen. Borondate falta nabaria ikusten da ematen diren arrazoietan (forma defektua, legezko baldintzak ez betetzea, firma bakarra izatea...). Gogoa balego aztertuko lirateke. Adibidez azken ez ohiko Plenora alkatearen mehatxuaren inguruko idatziak ez zuen inongo formarik betetzen. Legea denontzat berdina izatea eskatzen dugu"* esan zuen Aristegik.



Senideak, HB, eta BOTAko kideak asteazkeneko prentsaurrean.





IREKIERA PROMOZIOA APIRILAREN 8ra ARTE

Gure ileapaindegiaren berriztatzea dela-eta, **%20ko BEHERAPENA** eskaintzen dizuegu zerbitzu guztietan, **SOLARIUM BERRIA** ere barne.

# Javier Berasategi

## Urteko enpresa gizona


"Inbertsio haundiak egiten ari gara eta lantegia haunditzen".

**Gipuzkoako Merkatal Ganbarak Javier Berasategi Tratamientos Térmicos TTTko presidentea "Gipuzkoako Urteko Enpresa gizona" izendatu zuen ostiralean. 1961ean Legazpin sortu eta 1972an Bergaran kokatutako enpresak gaur egun 72 langile eta mila milioi inguruko fakturazioa du.**

**- Zein da sari hau jasotzearen arrazoi nagusia?**

- Ez dakit, Toribio Etxeberria enpresa ideien azken lehiaketan saritutako "Producción integrada de vástagos" proiektua garatzen ari gara eta horrekin batera azken urteotan horizontalki hazten ari gara, hau da, autonomoak diren enpresak bilduz. Gaur egun TTT taldean, Bergarako lantegiaz gain, Aretxabaletako Goiko eta Kronitek, Zumarragako Goiko eta Irungo Iontech biltzen dira. Oso inbertsio haundia egiten ari gara eta horren adibide bat "Proyecto de Ecogeneración" deiturikoa litzateke. Horretarako Bergarako lantegia haunditzen ari gara.

**- Zertan datza proiektu hori?**

- Gure energia propioa sortzea litzateke helburua. Gas naturalak autonomia izatea eta gastuak murrizteko aukera emango digu. Ekogenerazioa gurea bezalako enpresetan berria da. Lantegiak sortu eta botatzen dituen hondakinak beste abantaila batzuetarako erabil daitezke, errekara isurketak gutxitzeko adibidez. Ingurugiro baldintzak eta produktibitatea hobetuko dira.

**- Zeintzuk dira TTTk egiten dituen lanak?**

- Piezen barruko egiturari beste ezaugarri batzuk ematen dizkiogu, gogortasuna, erresistentzia etabar. Beti ere merkatuko elementu eta medio onenekin lan egiten saiatu gara. Tratamendu termikoen barruan berritzaileak izan gara. 1980tik aurrera dibertsifikaziora jo genuen eta hainbat tratamendu landu ditugu. Orain Aenor-ek ematen duen ISO 9002 kalitate ziurtagiria jasotzekotan gaude.

**- Zein da TTTren merkatua?**

- Automobil sektorea nagusiki. Eta teknologien deribazioarekin beste merkatu batzuk sortzen dira, aeronautikoa adibidez. Rolls-Roycerako lan egiten duten Zamudioko ITP eta Oviedoko Santa Barbara enpresekin lanean ari gara eta puntako teknologia behar da. Rolls Roycek lan honetarako Estatuan homologatutako enpresa bakarra gara. Aluminioa eta poliestereko rekarge bigunak egiten ditugu abioien motorrean ahalik eta kolpe gutxien izateko.

Era berean, esparru biomedikoan ari gara lanean, mokorra eta belaunen inplanteen rekargeekin hezurrarekin akoplamendua hobetzeko.

**- Nola ikusten duzu Bergarako industria?**

- Bergara probintziako herri interesgarrienetakoa da ematen den dibertsifikazioagatik. Ondo konpentsatutako herria da Bergara.

### "Industria mailan Bergara oso herri interesgarria da, ematen den dibertsifikazioagatik"

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

TESTUA: IÑIGO ALBERDI
ARGAZKIA: JUAN IDIGORAS

# BERGARAKO ORGANOAK

## VIII. KAPITULUA

## CODA

**Musikarien artean "Coda" izenez ezagutzen da pieza baten azkenengo zati edo gehigarria. Aste honetako artikulu honentzat, azkena denez, izen aproposa izan daiteke.**

Orokorrean, zer esan genezake organoei buruz? Lehen datua, eta garrantzitsuena, organo guztien garaikidetasunean datza, gehienak XIX-XX mendeen artekoak dira.

### Frantziako organoak eredu

Urte horietan organoarekiko grina handia izan zen, instrumentuak berritu eta garaiko modetara egokitzeko. Organoen salerosketa paperetan, behin baino gehiagotan erreferentzia hau topatu dut: "Deseamos un instrumento que se adecúe a los nuevos gustos...".

Gustuak aldatu ziren, eta moda berriaren eredua organo frantsesa zen, "Grand Orgue". Garai horretako erreferentzia artistikoa Frantzian zegoen. Organogile lanak bi alderdi lotzen zituen: artisautza eta injenieritza.

### Bertako organoen alde

Frantsesen presentzia hori gogor salatu zuten bertako organogileek, hori ikusteko hona hemen ustez Aquilino Amezuarenak diren hitz batzuk: "le dijo que era tan antieconómico como antipatriótico, hacer traer organos del extranjero que resultaban caros y malos, cuando había artistas en el País Vasco que los hacían mejores y más económicos". Bertako organogileek beren esparrua defenditu nahi zuten.

### Giro bizia

XIX eta XX. mendeen artean, eliza ezinbesteko erreferente musikala zen. Bere barnean, azterketa lan, berreskuratze eta konposizio saio ugari egin ziren. Euskal Herrian mugimendu horrek indar haundia izan zuen eta horren fruitua da organoarekiko interesa ere. Gaur ditugun organoak horrelako giro bizi batean jaio zirela jakitea garrantzizkoa da eta garrantzizko ondare bat osatzen dutela ere bai.

### Herriko ondarea hobeto ezagutu

Amaitzeko ordua heldu denez, espero dut artikulu hauen bidez herriko ondarearen zati bat hobeto ezagutzea. Hemendik aurrera, organoaren soinua entzutean datu gehiago edukiko ditugu eta hauek beharbada, euren doinuaren edertasuna areagotuko dute. Irakurle izan zaretien guztiei, eskerrik asko.



HONA HEMEN SAN PEDROKO ORGANOAREN KONTSOLA. ARGI IKUSTEN DIRA BEHEALDEAN PEDALIERRA, ETA GOIAN HIRU TEKLATUAK. TEKLATUAREN ALBOETARA DOINUAK AUKERATZEKO ERREGISTROAK.

BIBBLIOGRAFIA

- "Organologia". Alberto Merklin, Inprenta del Asilo de Huérfanos". Madrid. 1924.
- "Organos franceses en el País Vasco y Navarra (1855-1925)". F. Clastier-O. Candendo. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1994.
- "Don Rafael Puignau, maestro organero". Jose Maria Zapirain. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1994.
- "Bizkaiko organoak". Miguel Salaberria. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1991.
- "Gipuzkoako organoak". Argitaratu gabe. Elizbarrutiko organo-komisioak prestatuta, aurten argitaratuko da.
- "Bergarako kronikak". Donato Gallastegi. BergarakoUdala eta beste zenbait erakunde. Bergara, 1986.

ARTXIBOAK

- Donostiako Elizbarrutiko artxiboa. Angiozarko parroki liburuak bertan daude.
- Monjazarretako artxiboa (Klaratarrak).

AHOZKOAK

Lan hau egiteko pertsona askorekin jardun dut berbetan eta datu garrantzitsuak jaso ditut. Ez dut izenik aipatuko nahigabeko hutsik gerta ez dadin.

Azkenik, Juan Idigorasi eskerrak eman nahi dizkiot, hasiera batetik prest egon baita argazki eder hauek egiteko.

**Badirudi dena krisian dagoen garai honetan 3. munduari eta gure inguruan premian daudenei laguntzeko borondate handiagoa azaltzen dugula. ONG eta elkartasun taldeetan dabiltzan bergararrak ugari dira. Arrazakeriaren eta misioen eguna izan ditugun astean, talde eta gobernuz kanpoko erakundeak gehiago ezagutzeko aukera dugu.**



Atzerrian ezezik, hemen ere hirugarren munduaren alde lan egiten dute Gobernuz Kanpoko Erakundeek.

# Elkartasuna bizi-bizi

## Hirugarren mundua hemen

Euskal Autonomi Elkartean 1.994an, besteak beste, 70 Gobernuz Kanpoko Erakunde (GKE) zeuden. Gobernuz Kanpoko Erakunde horietaz gain, badira elkartasuna beste era bateko taldeetan lan eginez adierazten dutenak ere.

Horrelako taldeetan jardutea batzuen ustez modan dago, beste batzuentzat gure kontzientzia lasaitzeko bidea da, beste askorentzat, berriz, laguntza eskaintzeko modurik onena besterik ez da. Guk Komite Internazionalistak, Notseren aldeko taldea, Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Elkartea, SOS Arrazakeria eta FISC taldeetakoekin berba egin dugu zer diren eta zertan diharduten jakiteko.

### Komite Internazionalistak

Komite Internazionalistak Nikaraguan sandinistak sartu zirenean sortu zen Hego Euskalerrian. Hasieran Nikaraguarekin lan egin arren, gaur egun Guatemala, Salvador, Kuba, Palestina eta Mexikon lan egiten dute; Markos Gabilondo KI-kideak dioskunez *"herri aberatsak izan arren, miseria ekonomiko edo errepresio handia bizi dute"*. GKE-ek proiektuak bultzatzen dituzte, KI-k, berriz, sentsibilizazio lana dute oinarri: *"jendearen presentzia -brigadistak- eramaten dugu, politika eta elkartasun lana egiteko: hango jendearekin bizi izan, hartu-emonak izan, komunitate batetik bestera laguntzen ibili, GKE-ei lagundu... horrelako lanak egiten ditugu. Guatemalan, esaterako, errepresio handia dago gobernu, ejerzito eta latifundisten aldetik; komunitateetara joan, errepresioa salatu eta eskudo lana egiten dugu. Gero hemen hango egoera salatzen dugu, prentsaren bidez, hitzaldiak emanaz... Nikaraguan, esaterako, proiektu batzuk gauzatu ziren eta gero ez dute ezertarako balio izan, ez direlako erabili. Horixe da gure pekatua: gure ritmoa ezarri nahi diegu hangoei, eskolak edo beste zerbait jartzen diegu eta beharbada, eurek ez dute horren beharrik. Eurek zerbaitetan laguntzarik eskatu ezean guk ez diegu proiekturik eskaintzen, eskaerak eurengandik etorri behar*

## "Elkartasunaren kultura gizarte osoan zabaldu nahi dugu, gizarteak mundua modu justoagoan ulertzeko" J. A. Mikeo

*du. Gainera proiektuek dependentzia sor dezakete; euren errekurtsoak eta ohiturak bultzatu eta erabiltzen erakutsi behar zaie, ez gureak sartu".* Markosen iritziz, KIn presentzia eta lana estimatu dute herri horietan: *"euren lana errekonozitzea ta hemen euren egoeraren berri ematea laguntza handia da eurentzat".*

KIk apirilean hasiko dira brigadista kanpainarekin. Iaz 120 bat lagun joan ziren Hego Euskalerritik, eta aurten ere horrenbeste joango direlakoan daude. *"Brigadak ez dira bidaia alternatiboa, elkartasun lana egitera joaten gara. Joateko momenturik onena udan ez beste edozeinetan da, jenderik gehien udan egoten delako; komunitateetan herri askotako jendea elkartzen da, sarri masifikazioa egoten da, eta indigenekin harremana zailagoa izaten da".*

**Notseri Laguntza**

Togoko errepublikan dagoen Ana Mari Gallastegi angiozartarrak Angiozarko eta Elgetako parrokoari, Esteban Munillari, egindako eskaerari erantzun nahirik, Notse herrian eskola berria eraikitzeko proiektua abian jarri nahi da. Ana Gillegi buru duela, lan talde bat ari da proiektuaren finantziabideak aurkitzen. Ana Mari, besteak beste, irakasle da Notsen. Esteban Munillak adierazi digunez, Ana Marik joan zen abuztuan bete zuen profesioan 25 urte; *"erregalo polita litzateke berak egindako eskariari erantzun ona ematea".*

Taldearen helburua 5 milioi eskuratzea da; aurrekontu horrekin, eskola egin, bukatzeke dauden gelak egin, beste 4 gela eta komunak eraiki, eta ura eta argia sartu nahi dira. *"Aurrekontuan eskulana sartzeke dago, guraso eta herritarrek egingo baitute".* Notsetarrak hasiak dira doaneko materiala (harria, area, lurra, e.a.) bildu eta herriratzen, eta erosi beharreko materialaren zain daude. Dirua da, hortaz, orain behar dutena. *"Udalak lagunduko duelakoan gaude, %0.7 proiektua onartuta duelako. Bestetik, Ana Mari Angiozarren ezaguna da eta proiektuak erantzun ona izango duelakoan gaude. Bergaran ere, bergararra denez, esperantza handia dugu".*

Notsetarren eskola eraikitzeko edonork eman dezake dirulaguntza, horretarako zabalik dauden honako kontu korronte hauetan: Lankide Aurrezkiko 0091053-781 zenbakian edo Kutxako honetan: 10520-690.



Komite Internazionalistek batez ere erresprresioa dagoen herrietara jendearen presentzia eramaten dute.

**Informatika klaseak** emateko **pertsona bat** behar da (programazioa, erabilgarritasun programak...)

JAKIN AKADEMIA

**Zientzia** alorrean **klaseak** emateko **pertsona bat** behar da.

Kurrikuluma bidali 245 posta-kutxatilara (Bergara).

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

### Gipuzkoako Oscar Romero solidaritza batzordea

Mari Kruz Andueza Salvadorren misiolari duen anaia, Iñaki, ikustera joan zen 84ko udan eta errefuxiatuen kanpoan egon ziren. *"Gerra pelikuletan baino txarragoa da, ezin diozu inori hitzegin, beldurra da nagusi...".* Handik etorri eta Gipuzkoako Oscar Romero batzordea sortu zuten. Kristau filosofiadun nazioarteko GGKEk Hegoameriketako herri pobreei laguntzen die, baina batez ere El Salvadorri. *"Proiektuak bazkideek, partikularrek eta Antzuola, Irun, Eibar eta Tolosako udalek emandako dirulaguntzen bidez finantziatzen saiatzen gara. Guk dirua bidaltzen dugu, gauzak bidaltzea askoz garestiago ateratzen baita, eta eurek lan egiten dute. Dirua bidaltzea ez da nahikoa, beti nazioarteko laguntzaren zain egon ez daitezen erakutsi egin behar zaie".* Gerra bukatuta egon arren egoera lehen baino okerrago dagoela dio Mari Kruzek: *"bake akordioak ez du funtzionatzen, miseria handia dago, armak kalean daude, beldur handia dago, nekazal mundutik hirira joaten dira eta baldintza ikaragarrietan bizi dira..., eta egoera honetan okerren daudenak, duda barik, emakumeak dira. San Salvadorren prostitutekin lanean dihardugu eta nekazal munduan emakumea bergizarteratzeko proiektuarekin".* Mari Kruzen iritziz behin horrelako herri batera joanez gero *engantxatuta* geratzen zara eta lanerako gogo bizia sartzen zaizu. *"Gure artean jendea badago beharrean, baina ezin da hangoarekin konparatu, hemen eskubide gehiago dago".*



Oscar Romero Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak El Salvadorren bultzatutako oilo granja

### SOS Arrazakeria

Agustin Unzurrunzaga bergararra Gipuzkoako SOS Arrazakeria GKEn duela hiru urte sartu aurretik Gasteizkoan ibili zen. SOS arrazakeria, beste GKE batzuk ez bezala, ez dago 3. munduan, hemen baizik. *"Eto[...] kinak hemen daude, g[...] re laguntza hemen b[...] har dute, ez euren herr[...] an".* SOS arrazakeria era desberdinetako lan[...] egiten ditu. *"Etorkin[...] hizkuntzarekin arazo[...] dituzte; laguntza em[...] ten diegu dugun buleg[...] an zein kartzelan da[...] denean. Sentsibilizaz[...] kanpainak, hitzaldia[...] e.a. ere egiten ditugu[...]* Agustinen ustez talde[...] ren premia badag[...] *"Arrazakeriak Batasu[...] Europarrean indar hau[...] dia du. Europako herri a[...] kotan eskuin muturre[...] talde eta partidu politi[...] ugarik xenofobia aldar[...] katu eta ikur garrant[...] tsutzat erabiltzen du[...] Etorkinak baldintza t[...]*

**"Behin premia haundiko herri batera joan eta gero, lanerako gogo bizia sartzen zaizu" Mari Kruz Andueza**

BOLINTXO
Okindegia
San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

HARATEGIA- URDAITEGIA
Sebastian Imaz
Bildotsa, txahala eta oilaskoak
Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

*rretan bizi dira eta horren aurka borrokatzen duen taldea derrigorrezkoa da".*

GKEk moda bat baino ez direla dioen ustearekin ez dator bat: *"gaur egungo politikak ez die behar guztiei erantzuten. Dualizazioa handitzen ari da, esklusioa, txirotasuna, langabezia, etorkinekiko diskriminazioa, kartzelatuen egoera txarra... gobernu eta politikoek hartzen dituzten erabakien ondorio dira. Elkartasuna, besteen beharrez arduratzea, erreibindikatu egin behar dugun sentimentua da".*

Euskalerrian arrazakeriarekin aparteko arazorik ez dago, gure artean etorkin gutxi dagoelako. *"Gipuzkoa guztian Mataron beste ganbiar bizi dira -5.000 inguru-, eta erdiak europarrak dira. Beraz, inguruan etorkin asko ez izatean ez dugu bizi arrazakeria handirik".* Halere, Agustinen ustez arrazakeria ez dator herritarrengandik, Estatutik baizik. *"Estatutik datorkigun legearen arabera, 3. mundutik datozen etorkinak bigarren mailakoak dira. Legea da arrazista".*

**Nazioarteko Solidaritaterako Erakundea**

Jose Angel Mikeo Nikaraguara auzolandegi batera joan zen uda batean; hango errealitatea ezagutu eta hona etorritakoan lanean jarraitu beharra sentitu zuen. Horrela hasi zen FISC, Nazioarteko solidaritaterako fundazioan. *"Hangoek ez dute irtenbiderik inondik ere. Bizi duten miseria eta egoera hemengo gerra ostekoa bezalakoa edo-da. Bertara joateak horretaz konturatzeko balio du. Han eurengandik jasotzen duzuna zuk eurei ematen diezuna baino gehiago da: pobre bizi arren oso alaiak dira, kultura berria ezagutu, harreman berriak egiten dituzu...".* Orain Bergaran lauzpabost lagun dabiltza, baina asmoa boluntariadoa bultzatzea da, eta 3. munduko arazoez gain, hemengo arazoetan -transeunteak, etorkinak, e.a.- lan egitea.

FISCen helburua hemen kontzientziazio lana egin, eta 3. mundukoak heziketan eta oinarrizko beharretan laguntzea da. Horretarako proiektuak landu eta finantziabideak lortzen dituzte, batez ere, erakundeen eta bazkideen dirulaguntzaz. Kooperante lanak ere egiten dituzte. *"Sentsibilizazio kanpaina hutsak (kartelak ipini, hitzaldiak eman...) baino gehiago ekintzen bidez egiten ditugu kapainak".* Ildo horretatik egin duten azkena antiojoak biltzea izan da: *"jendeak kajoian baztertuta dituen antiojoak beste batek erabili ahal izateko eman ditu, eta hori, duda barik, sentsibilizazio kanpaina da".* Proiektuei dagokienez, *"Gabonetan Rwandan eskola bat eraiki zen, baina batez ere, Nikaraguako Granadan ari gara lanean. 3 auzorentzako, 7.000 lagunentzat, etxe komunal baten proiektua abian jarrita dugu: farmazia, liburutegia, folklore taldea, gazteentzako klaseak, josten ikasteko, umeentzako jangela, ortu komunala eta erabilera anitzeko gela bat ere badago. Oinezkoentzako 60 m.ko zubi bat egiteko asmoa ere dago. Bultzatzen diren proiektu guztiak hangoek eskatuta burutzen ditugu".*


Emakumeak dira lan egiten dutenak eta okerren bizi direnak.

Mikeok FISCez gain, beste talde batzuetan ere jarduten du. *"Mundu honetan sartzen zarenean ez zara GKE edo talde batera mugatzen, elkartasunean laguntzeko ahal duzun guztian parte hartzen saiatzen zara. GKE baten zentzua elkartasunaren kultura gizarte osoan zabaltzea da, oinarri berriak sortuz gizarteak mundua modu justoagoan uler dezan".*

Honela, besteak beste, INTERMONek eskaintzen duen materiala aprobetxatu eta eskolan sentsibilizazio lana egiteko erabiltzen du.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

Masterreka 24
Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak
Masterreka, 24 BERGARA

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

# Zein da zure hobby edo afizio nagusia? Zertan ematen duzu astialdia?



**Carlos Aguila**

*31 urte, langilea*

Gurutzegramak egitea asko gustatzen zait. Gurutzegramen aldizkariak erosteko ohitura daukat.



**Manuel Lijó**

*66 urte, jubilatua*

Futbola, telebistan ematen dituzten partidu gehienak ikusten ditut. Bilbo, Reala eta Coruñako taldeak jaraitzen ditut baina futbol zelaietara ez naiz joaten.



**Mirari Juaristi**

*36 urte, langilea*

Pasiatu eta sofan etzanda egon, telebista ikusi... horrelakoak batez ere. Baina gizonarekin pasiatzera irtetzea asko gustatzen zait.



**Lierni Gallastegi**

*35 urte, langilea*

Ez daukat denborarik egia esan, semeak kentzen dit eta. Baina hondartzara joan eta korrikan egitea gustatuko litzaidake.



**Menchu Manzano**

*33 urte, langilea*

Lagunekin afaltzera joatea izugarri gustatzen zait. Eta ahal dudanean hondartzara joatea ere bai, besterik ez zait bururatzen.



**Demetrio Real**

*75 urte, jubilatua*

Niri futbola gustatzen zait asko. Kirol gehienak jarraitzen ditut telebistatik eta, horretaz aparte, pasiatzera irtetzea gustatzen zait.


## INGELES IKASTARO INTENTSIBOAK

**BI HILABETE:** Apirilaren 15etik ekainaren 13ra.

**EGUNERO, BI ORDU TERDI**

**MATRIKULA EGITEKO EPEA:** Apirilaren 3ra arte.

HIZKUNTZ ESKOLA BERGARA

**INFORMAZIO GEHIAGO: UNED (3. solairua) ☎ 76 06 87**

*Goizez ala arratsaldez egin, ikasleek erabakiko dute.*



## *Kinielak*

**O**raindik 1.000 milioiko zorioneko kiniela ahaztu ezinik daukagunean, batez ere tokatu ez zaigulako, martxan dira beste motatako kinielak, Oscar sarien kinielak hain zuzen ere.

Oscarrak jokutzat hartu behar dira -askotan filme onenak saririk gabe geratzen dira, beste askotan Oscarretan irabazten dutenak benetan onenak dira- baina futboleko kinielak baino diru kopuru askoz haundiagoa banatzen duen jokua. Bakarrik Hollywoodeko sarietarako aukeratua izateagatik filmeek biltzen dituzten diruak miloi askotan gehitzen dira. Zinezaleen aurrean "nominazioak" filmari kalitatezko etiketa ematen dio. Sari hauek zinera joateko irrika sortzen dute jendearengan, jendeak filmeen balioa konparatu nahi du, eta azkenean Oscar gehien lortzen dituzten filmeen etekin ekonomikoak zoragarriak izan dira benetan.

Aurtengo "nominazioak" ikusita ez da garaile argi bat ikusten, filmeen "nominazio' kopuruan hutsune garrantzitsuak baitira. Dena den, eta kontutan harturik Berrigarakoek kiniela hau egiteagatik ez didatela kobratuko, nire kiniela botako dut (dedukziozko kiniela, filme gehienak ikusi gabe ditudalako).

Aktore saria Nicolas Cage lortuko duela dirudi. Aktoresa saria, urte asko itxaron ondoren, Susan Sarandonek eskuratuko du. Emma Thompsonek bere Oscarra izango du baina gidoilari bezala, "Sentido y sensibilidad"ren gidoiagatik. Aktore sekundarioen sarietan Ed Harris eta Joan Allen izango ditugu. Zuzendari onenaren Oscarra (gehiegizkoa izanik) Mel Gibsonentzat izango da eta filme onenarena "Sentido y sensibilidad"ek eskuratuko du.

Dena den, futboleko kinielak eta Oscarreko kinielak badute zerikusirik, ez dut asmatuko ez bata eta ez bestea.

**Antonio ZABALA**



## *A ze lotsa!*

**B**ergararrok gure herria izan denaz harrotasunez hitzegiten dugula diote. Eta egia diote, arrazoi ugari baitaukagu gure herri txiki honek historian zehar zer nolako kultur maila erakutsi izan duen ikustean, noraino iritsi den gure izena jakitean.

Harrotasuna eta ez harrokeria, baina bai benetako postasuna gure arbasoek Bergarako herriaren izena hainbat lekutara eraman izan zutelako, Real Seminario Vascongadoko ikasketak zirela, musika munduan lortutako ospea zela, industrigiantza aurreratua...

Gaur berriz, bergararrok jauntxo pobretuen antzera aintzinako edertasunaz hitzegiterik besterik ez daukagu. Hainbat arlotan krisiak jota gelditu garen une honetan kultura mailan daukagun altxorra kareletik behera bota nahi digutela ikustean burua makurtu, ixildu eta aintzinan Bergarak zer nolako kategoria zuen oroitzearekin konformatzen gara.

Baina jakin beza geroak herri honek inguruko beste inork ez zuen unibertsitate propioa zuela eta bergararrok odolhustutzen utzi genuela; jakin bezate gerokoek, euskara loratu egin zela inoiz izan dugun egitura akademikorik ederrenean, eta hura itotzen utzi genuela, bitartean aintzinako edertasunez berbetan ahoa berotzen genuen.

Eta jakin beza mundu osoak gutzi hau gaitasunik gabeko agintarien erruz gertatu zela, eta gu guztion apalkeriagatik. A ze lotsa!

**Martin GARITANO**

Garnish
Bitxitegia
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

AGENTZIA:
J. ELKORO
Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA
ZURICH VITA UNIBER CAUDAL HISPANIA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

## Gorka eta Eliren ezkontza

Larunbatean **Gorka Elortza** Berrigarako zuzendari ohia eta Angiozarko auzo alkatea, eta **Eli Payros** Udaleko Euskara teknikaria ezkondu ziren **Asentzion**. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, primeran pasatu zuten familiarteko eta lagunekin. Ezkon osteko bazkaria **Atxondon** izan zuten. Ezkonbidaia egiteko, berriz, Sri Lankara joan ziren igandean bertan. Zorionik beroenak biei.





## Kazetari ospetsuekin

**Laura Martín** bergararra, Leioako Informazio Zientzietako fakultateko ikasle talde batekin batera, Madrilen izan zen joan zen astean hainbat komunikabidetan bisitari. Antena 3, Telecinco, Canal Plus, El Mundo, Ser edota Cope komunikabideen egoitzak bisitatu zituzten eta kazetari ospetsuenen programak gertutik ikusteko aukera izan zuten. Argazkian ikus ditzakezue **Pedro J. Ramírez**, El Mundo egunkariko zuzendariarekin eta **Antonio Herrero** Copeko kazetariarekin batera. Laura atzeko ilaran kamiseta zuriz agertzen dena da. Kazetari ikasleek Antonio Herreroren programan gonbidatu bezala zegoen Javier Arenas PPko Andaluziako presidenteari galdera batzuk egiteko aukera izan zuten.



**ZUBIAURRE aroztegia**

Sarrerako eta barrurako ateak, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

**Carmen Garate**

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

## ■ San Martineko amak eta AEK



**AEKrekin euskara ikasten** ari diren San Martin ikastetxeko haur batzuen amek **"200 ordu euskaraz"** ospatu zuten joan zen larunbatean. Bergarako **AEK Akulu** Euskaltegitik bidalitako argazkian agertzen direnek dagoeneko 200 klase ordu izan dituzte eta izandako hobekuntza ospatzeko lagunartean afaltzea erabaki zuten. Azpeitxi jatetxean bapo afaldu ondoren sekulako parranda egin zuten mintzapraktikaren aitzakiarekin. Ez da ikasteko metodo txarra, dudarik ez...



## ■ Udal Euskaltegikoak sagardotegian

Bergarako **Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak** Aginagako Aginaga sagardotegian izan ziren joan zen ostiralean. Euskaltegikoek urtero sasoi honetan sagardotegiren batera irteera egiten dute eta joan zen ostiralean 110 bat lagun elkartu ziren, soinujole eta guzti. Txotxetik-txotxera nahi beste sagardo edan eta makailau tortila eta txuleta ederrak jan ondoren, gorputzari astindu batzuk eman zizkioten ausartenek, trikiti soinuen laguntzarekin.

## Zertan *dihardute* ba?



**Carmelo Azkoitia** 50 urteko atxabaltarra Bergarako Industrialdeko gerente izendatu dute. Aretxabaleta eta Oñatiko industrialdeetako gerentea ere bada eta bere hitzetan, *"lehendabizi proiektu urbanistikoa egingo dugu eta jarraian pabilioiak saltzeari ekingo diogu".* Azkoitiak datorren urtean lehen pabiloiak martxan jartzeko itxaropena azaldu du eta lanpostu berriak sortzeko helburua, teknologia berrien garrantzia eta Industrialdeak duen kokapen ezin hobea azpimarratu ditu. Industrialdea (15.000 m2) Zerrajerako orubeetan kokatuko da eta SPRI erakundeak (%51), Diputazioak eta Bergarako Udalak (%24,5na) hartzen dute parte.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Matxiategi Elektragintza C.B.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

# Idoia Suinaga

**10 urterekin bibolina ikasten hasi eta 7. maila egiten dihardu. Titulua eskuratzeko beste maila bat falta zaio. Aritzetan urtetxo batzutan ibilia da.**

**- Zertan pentsatzen duzu bibolina jotzean?**
- Musikaren eta egoeraren arabera izaten da.
**- Beste zein instrumentu ikasiko zenuke?**
- Asko: gitarra, biolontxeloa... pianoa ikasten hasi eta laga egin nuen, orain damututa nago.
**- Norekin joko zenuke kontzertu batean?**
- Luz Casalen abesti batean berarekin.
**- Vienako Orkestra Sinfonikora joango zinateke?**
- Duda barik, baina ezinezkoa da, ametsa.
**- Filmeetako musikei erreparatzen diezu?**
- Asko, La lista de Schindler, Bailando con lobos, Robin Hood... oso gustoko ditut.
**- Maitale anonimo baten deiak jasoz gero...**
- Zein den galdetu eta erantzun ezean moztu egingo nioke. Behin baino gehiagotan deituz gero ere moztu.



*"Musika estilo guztiak gustatzen zaizkit; klasikoan gehien bat barrokoa eta Bach. Kanpotar bat Bergaran Elosura eta, giroa ikusteko, tabernetara eramango nuke. Interneta ez nuke erabiliko mezuak bidaltzeko"*

**- Larrosarik sekula erregalatu dizute?**
- Ez, lorerik ere ez, baina erregalo polita da.
**- Kanpotar bat Bergarako zein lekutara eramango zenuke?**
- Elosura, tabernetara zein giro dagoen ikusteko,...
**- Zer ez zenioke erakutsiko?**
- Industrialdea.
**- Mutilei zein piropo botatzen diezu?**
- Ez diet botatzen; neskei botatako batzuek ere ez dute graziarik.
**- Realeko jokalari bat?**
- Aranzabal. Realaren jarraitzaile naiz.
**- Barruko erropa gorria ala beltza?**
- Beltza.
**- Zerbaiti badiozu alergiarik?**
- Ez, baina hipokresia politikoa alergia sortzeko modukoa da.
**- Nori egingo zenioke elkarrizketa bat?**
- Zuri, bengantza modura.
**- Interneten zein mezu lagako zenuke?**
- Zuzenean, aurrez aurre emango nuke mezua.
**- Txisterik badakizu?**
- Oso txarra naiz kontatzen.
**- Etorkizuna zein koloretan ikusten duzu?**
- Orokorrean beltz samarra: lanpostuak, konpetentzia...
**- Astebetean zein pertsonaia izatea gustatuko litzaizuke?**
- Arranoa, hegan egiteko.

Cristina Garciandia Mujika

DERMATOLOGIA
BENEREOLOGIA
MEDIKUNTZA KIRURJIKOA

San Martin Osasundegia
Ramón María Lilí, 2 (Ate nagusia)
Telefonoa: 76 59 39

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

## ETXEBIZITZA

**Pisua** salgai. 80 m2 eta 6 m2ko terraza. ☎ 76 03 75.

**Etxea** salgai Koldo Eleizalden. Prezio interesgarria. ☎ 76 35 20.

**Pisua** salgai herri erdian. ☎ 76 39 64.

**Pisua** salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/76 56 07.

**Pisua** salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

**Pisua** salgai Burdiñaten. 70 m2. ☎ 76 38 06.

**Pelukeria** traspasatzen da herri erdian. ☎ 76 14 60.

**Garajea** salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

**Garajea** salgai Santa Marinan. ☎ 76 29 36.

**Garajea** (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

**Pisua** salgai K.Eleizalden 25ean. ☎ 76 09 37/53 55.

**Pisua** alokatzen da Antzuolan. ☎ 76 64 65.

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 25 32.

**Garajea** salgai Bolun (2 plaza). ☎ 76 54 11.

**Garajea** alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 29 33.

## DENETARIK

**Txakurrarendako** kaseta txikia salgai. ☎ 76 09 12.

**Kawasaki** GPZ 500 motorra salgai. ☎ 76 33 46.

**Nikon** 70210 "D" objetiboa salgai. B + W filtroa, parasol originala. Erabili gabe. ☎ 76 52 31 (Jesus, gauez).

**Hi-Fi** kate txiki bateko bi bafle salgai. ☎ 76 52 31.

**Suzuki** GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauez).

**NSR** 125 motorra salgai. SS-AG matrikula, 125 cm3. ☎ 76 07 28 (Jon Ander)

**486 Compaq** ordenagailua saltzen dut. Oso egoera onean. 20.000 pezeta. ☎ 76 00 91 (Javier).

**Renault 4** F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

**Ford Sierra** kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

**Boxer** txakurkumak salgai. ☎ 76 28 68 (21.00-23.00).

**Musika** bateria salgai. la berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

**Lancia** Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

**Montesa** H7 Enduro motorra (250 cm3) salgai. 100.000 pta. ☎ 76 31 40.

**Pekines** txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

**Fiat Uno** 45 kotxea (SS-AC) salgai. ☎ 73 35 35.

**Opel Corsa** (SS-U) kotxea salgai. ☎ 76 46 54.

**Zorro** bat (walkmanarekin) galdu dut Usoako plazan. ☎ 76 31 05 (Iosune).

## LANA

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 48 65 (Paki).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89

**Neska** euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 15 12.

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Neska** batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 46 14 (Pili).

**Aleman** diplomatuak arratsaldez klase partikularrak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

**Matematika** (Enpresaritza maila) klaseak hartuko genituzke. ☎ 76 26 82.

**Zaharrak** zainduko nituzke, egunez zein gauez. ☎ 76 11 11.


Amets
Ford

• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
• Zango erremolkeak
• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

IGARO
✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariunma
Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

IBARGUREN PENTSUAK
Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak
San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

# BONOFOTOA







## Noemi Areitio

**Noemi Areitio**rentzat izan da aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderak berak asmatu baititu. Argazkian agertzen zen elkartearen izena eta zein urtetan sortu zen galdetzen genizuen: **Altzasu elkartea** zen eta **1964. urtean** sortu zen, etxea 1971. urtean amaitu zen arren. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Noemi Areitio**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

***Errege katolikoentzat eta Felipe II.a eta Carlos V.a erregeentzat lan egin, eta Goenkaleko Trinitateko monjen komentua eta Oñatiko Bidaurretako monastegia fundatu zituen bergararraren izena darama etxe dotore honek. Zein da gizon ospetsu horren izena?***

______________________________________________

**Izena:** ______________ **Abizena:** ______________ **Tfnoa:** ______________

**Saria**
**10.000 pzta.**

**Moztu paper hau eta**
**ekarri astebete baino lehen**

**BERRIGARA**
**Errotalde Jauregia Bergara**

# Labegaraietako *futbito* Txapelketa

## 1. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Errotagain | **34** | 14 | 59 | 22 |
| 2. Bar Canalejas | **31** | 13 | 47 | 14 |
| 3. Mongatxurra | **28** | 14 | 59 | 29 |
| 4. Ogizun | **26** | 14 | 47 | 44 |
| 5. Madura Industrias Gol | **23** | 13 | 42 | 32 |
| 6. Kabia | **19** | 13 | 30 | 32 |
| 7. Bildurbarek Opel/Lam | **15** | 13 | 32 | 37 |
| 8. Arloteak | **15** | 14 | 25 | 37 |
| 9. Ortzi | **13** | 13 | 22 | 41 |
| 10. Ozaeta | **4** | 13 | 29 | 63 |
| 11. Ufala | **3** | 13 | 30 | 69 |
| 12. Bergatrans | **0** | 0 | 0 | 0 |

## 2. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Jauja OH Zerezos | **42** | 16 | 110 | 51 |
| 2. A Ze Flaxa | **35** | 16 | 57 | 41 |
| 3. Pagomendi | **29** | 15 | 68 | 47 |
| 4. Artusamak | **29** | 15 | 54 | 38 |
| 5. Uve Bikoitza | **22** | 16 | 44 | 60 |
| 6. Naikari Hooligans | **22** | 16 | 57 | 58 |
| 7. Haltzari | **18** | 16 | 39 | 65 |
| 8. Etxagi | **16** | 16 | 66 | 80 |
| 9. Kayak Os Jardineiros | **16** | 16 | 67 | 67 |
| 10. Autoberezi | **15** | 16 | 46 | 58 |
| 11. Eri | **14** | 16 | 44 | 59 |
| 12. Indargorri | **12** | 16 | 19 | 40 |

## 3. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Soropotroak | **42** | 17 | 92 | 48 |
| 2. Kirolzaleak | **37** | 17 | 85 | 49 |
| 3. La Juve | **31** | 17 | 58 | 53 |
| 4. Ezinleike | **30** | 17 | 78 | 49 |
| 5. Amozkibar | **29** | 16 | 43 | 27 |
| 6. Nekrofilikos | **27** | 17 | 68 | 71 |
| 7. Moskis | **23** | 17 | 44 | 65 |
| 8. Construcciones Bergara | **22** | 17 | 53 | 61 |
| 9. EH Biterrak | **17** | 16 | 34 | 64 |
| 10. Igandekoak | **13** | 17 | 43 | 70 |
| 11. Shaktale | **11** | 17 | 36 | 67 |
| 12. Ari Ari | **9** | 17 | 63 | 80 |

## 4. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. FAC | **37** | 15 | 77 | 32 |
| 2. Guadalest | **33** | 16 | 66 | 31 |
| 3. Txipiron | **32** | 16 | 61 | 39 |
| 4. PJS | **28** | 15 | 65 | 41 |
| 5. Osintxu | **24** | 15 | 61 | 50 |
| 6. Matxakategi | **23** | 15 | 62 | 64 |
| 7. Patxaran Team | **22** | 16 | 55 | 83 |
| 8. Labegaraieta | **18** | 15 | 49 | 68 |
| 9. Pata Negra | **18** | 16 | 49 | 54 |
| 10. Aldoka Maldoka | **11** | 15 | 43 | 40 |
| 11. Xurrupak | **1** | 16 | 27 | 98 |

## Taldeak



**Osintxu** taldea Alexander Alberdi, Iban López, José Angel Ruiz, Iñigo Arando, Aritz Aizpurua, Mikel Larrañaga, Mario Eugenio Martínez, Unai Alberdi, Rubén Gauna, Julián Torres, Carlos Ruiz, Marcelino Alonso eta Igor Gaunak osatzen dute. Osintxuarrak dira guztiak eta nolabait auzoa ordezkatzen dute txapelketan. Halere, presio horrek ez du eraginik eta esan digutenez, "gure helburua futbitoan jokatzen ondo pasatzea da". Antolaketari dagokionez ondo dagoela diote, "taldeko batzuek Arrasaten jokatzen dugu eta hura txarragoa da".

## Partiduak

**LARUNBATEAN KANPOAN**

**09.00:** Etxagi-A Ze Flaxa • **Kabia**

**10.00:** Kabia-Mongatxurra • **A Ze Flaxa**

**11.00:** Madura-Bar Canalejas • **Mongatxurra**

**12.00:** Ufala-Bildurbarek • **Ozaeta**

**13.00:** Errotagain-Ozaeta • **Bildurbarek**

**15.45:** EH Biterrak-Amozkibar • **Arloteak**

**14.45:** Arloteak-Angiozar • **Amozkibar**

**OHARRAK**

**Pagomendi, Artusamak** eta **Nekrofilikos** taldeak ez ziren ez partiduak jokatzera ezta arbitratzera ere agertu joan zen astebukaeran. Antolaketa Batzordeak ez agertzearen arrazoiak jakin nahi ditu eta horregatik datorren asteartean arratsaldeko 6.30etan Kultur Etxeko ganbaran konbokatu ditu hiru taldeotako ordezkariak. Bestalde, Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu, **Eri** taldeko Mikel Garitano jokalariari zigorra ezarriko zaiola joan zen astean Etxagi eta Eri taldeek jokatutako partiduan arbitroari irainak egiteagatik.

## Emaitzak

**1. MAILA**

Ogizun-Mongatxurra ........ **2 - 6**

Errotagain-Arloteak ........ **9 - 1**

**2. MAILA**

Indargorri-Naikari Hooligans ........ **1 - 2**

Autoberezi-Uve Bikoitza ........ **1 - 2**

Haltzari-Kayak Os Jardineiros ........ **4 - 3**

Etxagi-Eri ........ **4 - 6**

Jauja OH Zerezos-A Ze Flaxa ........ **5 - 3**

**3. MAILA**

La Juve-Shaktale ........ **8 - 4**

Ezinleike-Ari Ari ........ **5 - 4**

Igandekoak-Kirolzaleak ........ **5 - 3**

Amozkibar-Construcciones Bergara ........ **4 - 0**

Soropotroak-Moskis ........ **4 - 3**

EH Biterrak-Nekrofilikos ........ **5 - 2**

**4. MAILA**

Labegaraieta-Patxaran Team ........ **2 - 5**

Txipiron-Guadalest ........ **3 - 3**

Pata Negra-Xurrupak ........ **2 - 2**

Aldoka Maldoka-Osintxu ........ **2 - 2**

PJS-FAC ........ **3 - 4**

## Taldeak



**Ari Ari** taldea Luis Carlos Ruiz de Egino, Juan Carlos Poza, Fernando Díaz, Iñaki Ruiz, Asier Azkarate, Igor García, Pedro José Morcillo, Oscar Ortiz, Gorka Mujika eta Javi Pinedak osatzen dute. 4 urte daramatzate txapelketan eta koadrila berekoak dira jokalari gehienak. Aurten 3. mailan daude eta azken postuetan dauden arren, UEFArako sailkatzeko helburua dute. Zail duten arren, ez dute umorea galtzen, "Realaren moduan 12 partiduko ratxari eutsi diogu, baina alderantziz, guk galdu egin ditugu".

## TXINPARTAK

### Gimnasia erritmikoa

Gipuzkoako eskola arteko Gimnasia erritmiko txapelketa jokatuko da larunbatean Labegaraieta kiroldegian, goizeko 11etatik odubatera eta arratsaldeko 4retatik aurrera. Guztira 100 bat neska arituko dira lehian eta Bergaratik Ariznoa Gimnasia erritmiko taldea ordezkatuz, 18 neska arituko dira alebin, infantil eta jubenil mailetan.

### Frontenis txapelketa

Bergarako I. Frontenis Txapelketa antolatu du Udal Kirol Zerbitzuak. Zabalotegiko frontoian jokatuko dira partiduak apirilaren 20tik aurrera larunbat edota igande goizetan. Bi maila bereiztuko dira, A maila 50 urtetik beherakoentzat eta banaka, eta B maila 50 urte edo gehiago dutenentzat eta binaka. Parte hartu nahi dutenek 1.000 pzta. ordaindu beharko dute kirol zerbitzuko bazkide badira eta 2.000 pzta. gainontzeko guztiek.

# Bergarako waterpolo taldea Gipuzkoako liga irabaztera



Agorrosinen entrenatu arren, Legazpin jokatzen dituzte partiduak.

Bergara Igeri Elkarteko waterpolo taldeak 5. amaitu du 8 taldek osatzen duten Euskadiko ligan. Orain Gipuzkoako Ligan ari dira buru-belarri eta euren helburua irabaztea da. Salva González taldeko entrenatzaileak adierazi digunez, *"3 talde gaude bakarrik eta uste dugu, joan zen urteko moduan, txapeldun geratuko garela. Halere, Hernanik asko hobetu du eta azken partidura arte ez da irabazlea erabakiko".*

Gaur egun waterpoloan jokatzeko jende gutxi dute eta datorren urtean taldea ateratzea zail izango dutela esan digu Gonzálezek. *"Kanpoko jendea ez baldin bada etortzen zail izango dugu taldea ateratzea. Legazpiko bi jokalari ditugu eta joan zen astean Eibartik 3 mutil etorri ziren entrenamenduak ikustera. Gaur egun Igeri Elkarteko harrobian ez dago waterpolora etortzeko moduko jokalaririk, gainera batzuk kanpora joango dira ikastera eta gauzak nekezago izango ditugu".*

## Lehen erregionala mailari eutsi nahian



Manu Díazen mutilen etorkizuna bi partidutan erabakiko da.

Zapatuan Miren Bihotza taldeari 3 eta 1 irabazi ondoren, zuzenean jeisteko postuetatik pixka bat urrundu egin da lehen erregional mailako futbol taldea. Halere, promozio postuetan dago oraindik. Asteburu honetan euren atzetik puntu batera dagoen Beraunen aurka jokatuko dute eta azken partidua Bergaran Erramu Zapatu egunean Arrasateren aurka.

**Berrigaran praktikak**

**Kazetaritza** edota **argazkilaritza ikasleok** Berrigaran praktikak egiteko aukera duzue. Interesa baduzue, zatozte martxoaren 29an iluntzeko 7.45etan Berrigarara (Kultur Etxea).

BERRIGARA

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

♦ **Bergara-Lasalle**
Lehen mailako infantilak.
Igandea, 11.00. Ipintza.
♦ **Bergara-Intxaurrondo**
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
♦ **Bergara-Zumaiako**
Emakumezkoak.
Larunbata, 17.00. Ipintza.

### NESKEN FUTBITOA

♦ **Guk-Potzu T. Z.**
Igandea, 16.30.
Migel Altuna Institutua.

### ESKUBALOIA

♦ **Bergara-Zuazo**
Kadete neskak.
Larunbata, 16.15.
Labegaraieta kiroldegia.
♦ **Bergara-Zuazo**
Jubenil neskak.
Larunbata, 17.30.
Labegaraieta kiroldegia.
♦ **Bergara-Ordizia**
Jubenil mutilak.
Larunbata, 19.00.
Labegaraieta kiroldegia.

### PALA TXAPELKETA

• Ugarte eta Elortza / Etxaniz eta Laskurain
• Alberdi eta Gallastegi / Etxeberria eta De Los
• Ribau eta Mancebo / Manso eta Toledo
• Agirrebeña eta Ubera / Pagaldai eta Marzan
• Manzanedo eta Txurruka / Acebo eta Ortiz
• Laskurain eta Alberdi / Martin eta Martin

Larunbata, 14.00.
Osintxuko frontoia.

# Josean Iñarra

## Kirol berrietan aintzindari

**Josean Iñarrak 36 urte ditu eta gorputz heziketan lizentziatua da. Baina horretaz gain, karate eta ninjitsuko gerriko beltza 2. "dan"a du, patinaia monitorea da, aerobic irakaslea eta Arrasateko institutuan gorputz heziketa irakasten du.**

**- Zaila al da horrenbeste kiroletan aritzea?**

- Bai oso zaila da. Gehiago esango dut, nire emaztea ez bada dibortziatzen asko maite nauelako da edo ez dakit... Ordu asko sartzen ditut kirolean, larunbatetan arte martzialak eta patinaia egiten dut, aste barruan eskolan klaseak ematen ditut, goizez eta arratsaldez karatea eta aerobica irakasten dut.

**- Aguantatzen al duzu erritmo hori?**

- Askotan aste erdian gorputza nahiko nekatuta izaten dut, baina nire amak esaten duen moduan, "ipurdia ezin dut geldirik eduki" eta kirol mailan gauza berriak probatzea gustatzen zait.

**- Beti kirol berriak probatzen ari zara, ez?**

- Beti gustatu izan zait herrira kirol berriak ekartzea. Ziur nago jendeak erridikuloa egiteko beldurra galduko balu, kirol berri horiek egingo genituzkeela. Hain zuzen ere, patinaiari dagokionez, emakume talde bat ezagutzen dut, patinatzera gauez eta izkutuan joaten direnak, erridikuloa egiteko beldurrez.

**- Aritzen zaren kiroletatik zein da konpletoena eta zailena?**

- Guztiak dute zerbait. Zailena patinaia da. Batez ere figurak-eta egiten hasten zarenean. Patinaia eta pertiga jauzia dira zailentzat jotzen diren kirolak.

**- Ba al dute harremanik karateak eta patinaiak?**

- Bai, karatea egiteko oreka behar duzu eta patinaiarekin hori lortzen da.

**- Zela dago gorputz heziketa eskoletan?**

- Asko aldatu da. Hasi ginenean kirol konkretuak ezagutaraztera mugatzen ginen, baina orain adibidez ikasleari entrenamendu sistemak, zer den flexibilitatea, indarra, erresistentzia e.a... erakusten diogu.

Bestalde, aukeratzen duten kirolaren denboraldi osorako entrenamendu plangintza egiten dute. Orain arte gorputz hezkuntza 2. mailako asignaturatzat jotzen zen, baina orain besteen maila berean dagoela esango nuke, asko aurreratu da.


"Kirolik zailenak patinaia eta pertigarekin egindako jauzia dira".

## "Kirol berriak egiteko erridikuloa galdu behar dugu"




# *Antzuolako eskolako neskak*

Aste honetako argazkiak 70 bat urte ditu. Argazkilari bat Antzuolako eskolara joan zen ikasleei ea argazkian atera nahi zuten galdetuz; neskatilek baietz, jakina. Orain, 80 urte inguru dituzten neskatilatxoak ikasturte hartako oroimenik onenetakoan ditugu. Hona hemen ezkerretik eskumara argazkikoen izenak:

**Goiko ilaran:** Plácida Peña, Maria Larrañaga, Ursula Aranes, Angelita Lizarralde, Pantxika Ingidua, Antonia Aranguren, Isabel Mendiola (andereñoa), Blanka Telleria, Katalina Lamariano, Pantxika Agirre, Jesusa Azkarate eta Juana Iparragirre.

**2. ilaran:** Basilisa Manzisidor, Teodora Igartua, Isidora Araiztegi, Ramona Iparragirre, Josefa Jauregi, M. Luisa Telleria, Katalina Ortueta, Asuncion Mendizabal, Juanita Narbaiza, M. Pilar Zabala, Maria Igarza eta Kruzita Garitano.

**3. ilaran:** Kristina Agirre, Konsuelo Agirreurreta, Rufina Arosa, M. Luisa Madariaga, Zelestina Garitano, Luisa Pérez, Juli Telleria, Isabel Lamariano, Juli Aranzabal, Maria Zabalo eta Angelita Iñarra.

**Eseritа:** Kontxita Agirre, Josefa Aranzabal, Maria Larrañaga, Klaudia Kortabarria, Dolores Lugarizaristi, Inocencia Eguren, Presentación Toledo, Dominika Agirre, Leona Jauregi, Lucía Mancisidor, Juliana Aranguren, Guadalupe Zabalo.

*Argazkia: Konsuelo Agirreurreta eta Jose Mari Larrañaga*

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

Zumelaga
JATETXEA
San Antonio, 5 BERGARA
☎ 76 20 21
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

# LILURA Edertze Institutua



**LILURA** Edertze Institutuak bere **15. urteurrena** ospatzeko bere bezeroen artean antolatutako zozketan **Kontxi Ilarduia** izan da saritua. Mertxe Miner bezeroak atera zuen 87. zenbakia zuen txartela, Kontxi Ilarduiarena hain zuzen ere. Beraz, Kontxiri tokatu zaio **100.000 pzta.ko balioa duen tratamendu estetiko-medikoa**. Zorionak!!.

*ADI ORAIN!! ESKAINTZA BEREZIA SOLARIUMEAN*



KONTXI ILARDUIAK JASO ZUEN SARIA, GUADALUPE GARCIAREN ESKUTIK.




**NOIZ:**
Apirilaren 16tik
maiatzaren 14ra (10 ordu)
**ORDUTEGIA:**
Astearteetan, arratsaldeko
6.30etatik 8.30etara.

**PREZIOA:**
2.000 pzta. bazkide direnentzat.
2.500 pzta. ez direnentzat.
**IZEN-EMATEA:**
Apirilaren 2a baino lehen
JARDUNen (76 08 19).

**HURRENGO IKASTAROA: SUKALDARITZA**

Jardun




twingo





Eta orain
finantzaketa harrigarria:
eskura ezazu Twingo bat egunean 650 pta.gatik

RENAULT

MECA